

# **GORRI, BERDE.... ASKATASUNERAKO KOLOREAK**

**Ekosindikalgintzaren arazoaz**

**Iñaki Barcena**

Artikulu honen helburua krisialdi ekologiko eta ekonomikoaren aurrean irizpide askatzaile eta solidarioak bilatzea da. “Marxismoa eta arazo nazionala” LAB-ek antolatutako mintegi baterako eta “Ekologia eta enplegua” ERREKA eta EKI erakunde ekologistek antolatutako mintegi ekosindikalistarako ere prestatutako materialen bilduma bat da, hain zuzen ere.

Problematika sakon eta epe luzerako aldaketen kontuan sarturik, oraingo galdera eta kezka zabal batzuei erantzun nahi zaie, gaia ixteko inongo asmorik gabe. Guztiz kontrakoa, debatea astindu eta kontrako ikuspuntuak eta ikuspuntu zorrotzagoak bilatzeko gogoaz. Hala bedi!!

---

## Marxismoa eta ekologismoak elkarren kontrakoak dira?

---

Marx eta Haeckel garaikideak ziren eta ikerlari alemaniar bi hauei zor diegu klase sozialen arteko borroka eta ekologiaren kontzeptuak “zientzi” izatera eramatea. XIX. mendearen erdian, batak (bere bidailagun F. Engels ahaztu barik) *Manifiesto Komunista* (1848) eta besteak *Bizidunen Morfologia Orokorra* obrekin (1866) proposamen berrietarako lehenengo harriak ipini zituzten. Handik hona mila aldaketa izan dira mundu biribilean, eta askoren buruan dabil galdera hau, zein puntutaraino dira kontrajarriak ekologismo “hazkorra” eta marxismo “dekadentea”?

Ekologista zein marxistok ezin dugu pentsatu pertsonaia klasiko hauengan datzatela erantzun eta gako guztiak edota nagusiak. Ez. Marx-ek ez zuen langile borroka asmatu, eta zentzu horretan historian barrena berdintasuna eta hierarkia klasisten aurkako adibide ugari topa dezakegu; baina ezagutzen den baino gehiago aportatu zuen.

Haeckel, ikerlari darwinista ere ez da borroka ekologistaren aitzindari bat, ekologismoa gizarte-mugimendu berri bat bezala orain dela hamarkada bi edo hiru bakarrik jaio baitzen; bere meritoa arlo zientifiko-akademikoan datza.

Gaur aldiz marxistak eta ekologistak elkar ezagutzera kondenatuta gaude, giza duintasuna eta naturaren defentsa borroka bera bihurtu direlako.

Mendebaldeko gizartean gaur egun sioux tribuaren buruzagi haren diskurtsoa, bere lurra eta naturaren pribatizazio eta ustiapen industrialaren kontra ulergarri egiten zaigu oso. Indiarren sarraskia eman zen eta bere planteamendu ekologistak ordea ez dira hil; nahiz eta Barry Commoner-ek dioen bezala, egungo ekologismo estatubatuarra sintomak salatzen ari, jatorrizko kausak aipatu gabe.

Tiziano Bagarolo marxista italiarrak (*Marxismo ed Ecologia*, Nuove Edizione Internazionali, 1989, Milano) marxismo eta ekologiaren arteko kontraesan, antitesi edo elkar ulertzearen alorrean saio berezi bat egin du. Erakutsi digun bezala, hasierako marxismoak antropozentrisismoaren birdefinizio bat ekarri zuen, “gailur” edo “izadiaren patroia” konzeptu mitiko kristaua eta burgesia jabetunaren apartekoa, Eskuiskribuetan, Ideologia Alemana edo Naturaren Dialektikan adierazten dena. Bere ustez: **”Iraultza darwin-darraren ikuspuntu materialistari atxikimendu osoa da, gaur ekologiak beteki balorizatu duena. Mito honek gizakia besteen arteko espezie bizidun egiten du, bere bizitza beste bizitza-mota guztiei hertsiki loturik. Naturaren beste bizidunei errespetua, gizakiari berari errespetua da, bizi-baldintzak kontserbatzeko, oinarri zientifikorik gabeko erromantizismo bukoliko edo “aurreko naturaren harmonia”-ren kontsiderazioetan jausi gabe.”**

Hala eta guztiz ere, ekologismoaren familian batzuk marxismoaren aurkako olatuan igotzen dira. Normala da.

Baina ezin dute ukatu langileriaren historian ere lan-baldintzen ondoan bizi-baldintzen hobekuntzaren aldeko borroka izan direla. Aspaldidanik langileriak Erandion edo Avilesean esaterako, arazo ekologiko larriak plazaratu zituen. Izen hori izan gabe.

Dena den Paco Fernandez Buey katalanak esaten digunaren arabera: **“Fue un error de los sindicatos de clase y de los partidos obreros mayoritarios de Europa negarse a aceptar los análisis de los ecólogos, rechazar la ecología política e ignorar las implicaciones -tan próximas a la propia lucha ya secular- de la crítica ecologista, sobre todo aquella crítica que desde el primer momento supo relacionar aquí y en otros lugares de Europa economía y ecología política.”** (*Mientras Tanto*, 41.zk. Bartzelona. 1990.eko udaran).

Marxista askok ere, Iraultza sozialista eta botere politiko irabazteaz gain, eguneroko bizitza zaindu eta aldatu behar zela, esaten zuen. Baina geroago kritika feministak adierazi behar izan zuenez arlo pribatua guztiz “politikoa” da, botere-harremanen parte alegia, eta ez dugu inongo estatuaren -kapitalista edo sozialista-konponbide patriarkala itxaron behar.

Marxismoaren erdigunean, gizaki edo klase sozialen arteko lehia islatzen da. Aro Modernoaren lorpen handiena horixe izan zen, Jainkoa eta bere ordezkarien eremua -Eliza eta Erregeen dinastiak- pixkanaka alboratuz gizaki razionala munduaren oinarri eta ardatz izatea.

Natura, izadia, modernitatearentzat bitarteko bat izango da, baita kapitalisten eredu produktibista eta industria-arentzat zein marxismoaren izenean gizateria salbatu nahi zutenentzat. Produkzioaren garapen mugagabearen filosofiak, hau da naturaren ustiapen bukaezinak hankasartze zientifiko-teknologikoak ekarri ditu, alde ideologiko bietan.

**Kapitalismoak** zein **sozialismo errealak** bere miseria ekologiko-sozialak ezin dituzte ukatu. Orain dela 400 urte Europan hasita eta mundu osora zabaldurik, burgesiak bultzatutako eredu sozio-politikoa, eta batez ere ekonomikoa, garailearen irudiaz agertzen da.

Ez da mendebaldeko sistema bat bakarrik, kapitalismoak Marrokko zein Filipinetan baita ere ezartzen da, merkatu librearen izenean. Abantaila teknologiko eta botere militarrekin, potentzia kapitalistek munduko lan-banaketa, merkatal sareak eta herrialde desberdinen partehartzea erregulatu dituzte, orain arte.

Bestalde, II. Mundu-Gerra eta gero langileen erakundeak, sindikatu eta partidu sozialista eta komunistak, “Lehenengo Munduan” **gizon-zuri-profesional**aren eredu modernoaren aldeko apostua eginez, produkzioaren pastelaren parte bat eskuratzeko liskerran murgildu dira soilik, Bigarren (Ekialde Sozialista zena) eta Hirugarren munduko (Hegoa) langile zein nekazari gizajoez kanpo-zorra eta demokrazia liberalaren amets gaiztoetan itotzen diren bitartean eta metropolien ertzeetan Laugarren

mundu marjinetua nola usteltzen den kontenplatur.

Ezin dugu ukatu jadanik planeta honen desoreka nagusia Ipar-Hegoaren artekoa dela, hots, garapena, ekonomia eta bizi-segurtasunerako diferentzia hazkorrak.

Marxismoaren ohorean, 1917. urtean, I. Mundu-Gerraren eszenatokiaren Errusiar Inperioaren amaierarekin Lenin-en partidu boltxebikek (gehien-goarena) lehenengo estatu langilea inauguratu zuen eta lehenengo esperientzia estatal sozialista eraikitze-rakoan, bi ziren atal nagusiak: **sovietak eta elektrizitatea**, Lenin-ek zioenez.

1991eko udaran, Jeltsinen dekretu batek PCUS osoa desegin zuen arte, batzuek ez zuten ulertzen sozialismo piramidal eta endekatu horren zergatiak. Mila adibide ipin ditzakegu. Arlo ekologikoa aukeratuz, Urriko Iraultzaren hasieratik mugimendu kontserbazionista-ekologista sendo bat bazegoen (ikus, BATOU, Jean. *Los orígenes del movimiento ecologista en la URSS* Inprecor 81. zk. 1991.eko Urtarrila) baina beste kontu askotan bezala 1928-29 urteetan boterearen helburu ekonomiko industrialistekin topo egin zuen eta burges txikien antzera kriminalizatuak izan ziren.

Estadu-Partiduaren burokraziak ez zuen diferentzian sinisten. Iraultzak lerro estu eta bakar bat zekusan eta goitik behera ordenatua. Zentralismo demokratikoaren irudia oso erraz burokratizatu egin zen eta Moskutik dena antolatzen zen. Nazioarteko harremanak eta beste esperientzia

sozialisten prozesua gidatu nahi zuten, nahiz eta Tito zein Mao-k, Jose Stalin-en aginduei muzin egin.

Sobietar Batasuneko errepublika guztiek autodeterminazio-eskubidea bermatuta zeukaten baina inor ez zekien zein baldintzatan erabil zitekeen. Gaur zorionez, legalitate horretan oinarrituz errepublika gehienak aske dira, nahiz eta pobre eta itzilutsuak.

Ekonomiaren arloan berdin, Gossplan erraldoi batek Moskutik markatzen zuen bidea eta industrian erabilitako iritzi eta teknologiek hango errepublikak egoera tragikoa eraman dute. Valentin Katasonen (*Perestroika, maskara antigasarekin: Iraganak gutaz mendekatu bada, guk nor mendekatuko dugu?*, EKOS. 1991.eko Uda, Mosku. Barka diezagula bere izena eta artikularen izenburua ziur txarto itzuli ditugula eta!!) beste zientzilari sobietarren ildotik hondamendi eta krisi ekologikoaz ohartu gaitu. Sistema burokratikoaren bahituak izanik, garapen ekonomiko horren joeratik degradazio genetiko eta sufrimenduz beteriko heriotzera abiatuta daude.

Txernobilgo tragediak argi utzi zuen, Sobietar Batasuna ez dela bakarrik superpotentzia bezala desgertu, are gehiago bere lurraldeetako (munduko 1/6 bat) biztanleria guztia arrisku handian dagoela.

Ez bakarrik estatubatuarren Pershing, Trident eta Polaris-en mehatxugatik, baizik eta ekoizpen berezko lehergailu frankok, hau da, zentral termonuklear, enpresa kimiko, oleo-

duktu eta abarrek arrisku teknologiko zein ekologiko izugarrikoek, ingurata daudelako.

Sozialismo errealak ez digu dudarik uzten, ekologismoak, (edo feminismoak) ez zuen bere agendan tokirik. Joan Martinez Alier irakasle katalanak (*De la economía ecológica al ecologismo de los pobres* Icaria, 1992) beste proposamen marxista edo sozialista desberdinen berri ematen digu eta bere ustez ekologismoaren sustraiak ez daude Iparreko klase profesional ertainen ekimenetan; aldiz bere tesian “txiroen ekologismoak” ez du erreferentzia bakarra marxismoan, baizik eta anarkismo eta populismo-narodniki erusiarrean ere.

---

### Gizarte-mugimendu “zahar” eta “berriak”.

---

Ez dugu mendebaldeko langileak eta mugimendu sindikala alde batetik eta ekologismoa, feminismoa edo antimilitarismoaren arteko sailkapen diferentziagarria egin nahi, adin eta denborazko arrazoiak soilik direla medio. Historiak dudarik ez, egoera diferenteetan subjektu sozialei desberdin erantzutea eskatzen die, eta horrek hauxe adierazten du, gure kritikak erlatibizatu behar ditugula eta ikuspegi historikoari ere kasu egin.

Dударik gabe azkenengo hiru hamarkadetan politikagintzan sortu den fenomenorik inportanteenetariko bat mugimendu sozial berriena da. Anthony Giddens britaniarrak modernitaterari lau ondorio nagusiak ateratzen dizkio: **Merkatal kapitalis-**

**moaren nagusitasuna, industria-lismoa, informazio eta gizartearen kontrola eta botere militarra.** Jaime Pastor-ren idazlanari jarraituz, (“Los nuevos movimientos sociales y la acción política” Inprecor 84. zk. 1991.eko Maiatza) lau dimentsio hauei mugimendu sozial bereziak dagozkie: **Langileria, ekologismoa, eskubide demokratikoen aldeko mugimenduak (nazio-askapenerako mugimenduak barne) eta bakea eta desarmearen aldeko mugimendua.**

Defendatzen baldin badituz horrelako iritziak, hau da, autore hauen erreferentziak aipatzen baldin badituz arrazoi bakar bategatik izan da: mugimendu sozial berriek, ez dena baina bai heredentzia asko, ezkerreko pentsamoldetik hartu baitute. Mugimendu sozial “berri eta zaharren” arteko parekotasun historikoak topa ditzakegu, nola ez anarkosindikalgintzan batez ere, baina ez hainbeste II. Mundu-Gerraz gozotik mendebaldean praktikatzen den eredu sindikalean.

Alberto Melucci soziologo italiarraren hitzetan: **“Los nuevos actores se expresan con el viejo lenguaje porque todavía no tienen un lenguaje propio. Mientras se forma utilizamos el que hemos heredado de los movimientos que le han precedido y que tienen sus raíces en la memoria y en los símbolos del pasado. Es por eso que la tradición marxista y la herencia del movimiento obrero han constituido la forma a través de la cual los nuevos actores han intentado definir la especificidad de los contenidos que incluyen”.** (“Los movimientos sociales en el capitalismo

tardío”. *A Priori*. 6/7 zk. 1983.eko Uztaila-Abendua).

Ezin dugu ukatu krisialdi ekonomiko-ekologikoaren aurrean Mendebal-dean programa eta praktika “berdeak” demokratikoenak, igualitaristenak eta solidarioenak direla, espektro elektoralean.

Dena den gure ustez, Boris Frankel idazle australiarrek bere liburua hitzaurrean (*Los utópicos post-industriales* Alfons el Magnanim 1989, Valencia) mugimendu zahar eta berrien arteko elkarkidetzaz ezinbestekoa planteatzen duenean ez dabil erraturik. Berak dioenez: **“Si la izquierda hace oídos sordos a las críticas a la sociedad existente de las ecofeministas y de los ecosocialistas se autocondenará a un futuro de conservadurismo político y de marginación. Por otro lado sin la fuerza político-económica y la experiencia del movimiento obrero, los movimientos alternativos están igualmente condenados a desaparecer bajo el peso de las fuerzas políticas conservadoras que constituyen una seria amenaza para el conjunto de todo el planeta”**.

Iritzi honen defendatzaile garenez, gure idazlan honen helburua horixe bera da, langileen indar ezkertiar eta herri-mugimendu berrien arteko desadostasun eta kontraesanetan sartu eta aterabide baikor eta askatzaile baterako eremua topatzerik dagoen ala ez.

Une historiko honetan, sozialismo burokratikoaren porrotaren biharamunean eta sozialdemokrazia europarra-

ren krisi sakonaren ebidentzian W. Abendroth historigile alemaniarrek 1965ean idatzi zuena, bururatzen zaigu: **“El movimiento obrero ha pasado por fases en que su realidad actual de cada caso y su aspiración original se distanciaron mutuamente. Y aún no ha terminado su camino. En los Estados Unidos y en los países del occidente europeo ha logrado para su clase un bienestar material que todavía hace medio siglo habría sido considerado por los ideólogos de la clase dominante como un peligroso sueño cuya realización significaría el fin de la Civilización, al aliarse la pereza y la sed de las capas inferiores”**.

Hogeitamar urte geroago, panorama sindikal europarrean gauzak ez dira aldatu oso, hori bai krisialdi industrial eta ekologiko larri bat ezagutzen ari gara. **Manifiestu Ekosozialistaren** burkideok plazaratu duten bezala inoiz ez baino gehiago, gizateriaren historian ez da hainbeste alderik izan aberats eta txiroen artean, dirudun eta pobreen errentetan.

Agian egoera honen aurrean batzuei, mugimendu ekologista eta partidu berdeen ondoan, sindikatu berdeak ere eraiki behar direla bururatuko zaie, lan-harremanetan eta alor produktiboetan heuren jarrera ekonomiko-sozialak bultzatzearen.

Hau da, dudarik gabe beste aukera politikoek egin zutena orain dela urte batzu, zorte handirik gabe. Behar bada horrexegatik saio horiek egin baino lehen langileria industrial eta ekologisten ikuspuntuak argitu beharra dugu, diagnostiko zorrotzago bat lortzeko.

Mugimendu sindikal eta gizarte-mugimenduaren diskurtso publikoan erretorika emantzipatzaile eta askatzaile bat aurkitzen badugu ere, alienazioaren aurkakoa eta zapalduen aldekoa, bietan nabaria bada gizarte-eta produkzio-harremanak zuzentzeko lege berriak, egitarauak, kanpainak, ekitaldiak, funtzionamendu-jokaerak (barne eta kanpora begira) eta publikoak aztertzerakoan, itsu eta gorrarena egingo genuke diferentzia izugarriez ez bagina konturatuko. Zertan daude diferentziak?

Kritika edo paradigma politikoaren aldaketa etsaiaren pertsonalizazioan oinarritzen da, batez ere. Langile eta mugimendu sindikalarentzat, gakoa bada ekoiztutakoa nola banatzen den patroi eta soldatapekoen artean, eta Mendebaldeko langileek azkenengo 50 urtetan banapen-kuota oso faboragarriak lortu egin dituzte, paktu sozial eta Ongizate edo Estatu Sozialari esker. Aldiz, ekologisten lerroetatik ikusita, tira-bira ez dago nagusiki bukaerako banaketan baizik eta hasieran, sustraitan. Zer produzitzen den eta nolakoan.

Hurrengo diferentzia nabarmena erakunde moduan datza eta ekintza politiko eta soziala nola ulertzen den alde bietan. Burokrazia sindikala eta gizarte-mugimenduen asanblearismoa dugu separazio izugarria. Batzuen eraginkortasunaren logikaren aurrean besteen konsekuentzia aurkitzen dugu. Nola borrokatu daiteke sistema injustu baten kontra beraren funtzionamendu-metodo berdinak errepikatuz?

Bestalde eta feminismoaren kritika-eraginez, gizarte-mugimendu

berriek publiko eta pribatuaren arteko muga edota moral bikoitza apurtu nahi dute, pribatua politikoa dela ere azpimarratzen dutelarik. Koherentzia errebendikatuz giza bizitzan, etxean, lanean edo kalean irizpide eta balore identikoak mantendu behar direla diote.

---

### **EKOLOGISMOA, paradigma berria edo beste moda bat?.**

---

Espreski, gure interesa langileria eta mugimendu sindikalista eta ekologismoaren arteko diferentzietan dago.

Ezkerraren optika tradizionaletik haxe entzuten dugu, ekologismoak naturari erreparatzen diola gizakiaren dignitateari erreparatu beharrean. Eta sakonean arakatuz, agerian geratzen da, sindikatu nagusiei lanpostu bat dutenei bakarrik babes ematen dietela eta hori ez dirudi gauza txikia sasoi neoliberal honetan.

Gehiago axola digu bestalde, gure gizarte industrializatuan lanaren "sakralizazioa" zergatik finkatu den, balore insolidario eta partikularisten inflakzioarekin batera.

Ekologia eta ekonomia ez dira manera errazean adostasunean jarriko eta arlo ekonomikoan jarraipen-ereduak krematistikaren hazkundera (dirua) eta zarrastelkeria direnean are zailago.

Eremu sozio-politiko desberdinetan erakunde eta talde ekofeministak edo ekosozialistak, mintegi ekosindikalistak, ingurugiroaren hezkuntzaren zabalkundera... eta bere ondoan kapi-



	POLITIKAREN PARADIGMAK	
	ZAHARRA	eta BERRIA
<b>aktoreak</b>	talde sozioekonomikoak bere interesen alde, banaketaren gatazkak	talde sozio-ekonomikoak, kolektibitate handiago baten defentsan
<b>edukiak</b>	hazkunde ekonomikoa eta banaketa. Segurtasun militarra, kontrol soziala.	bakea, ingurugiroa, giza eskubideak, lan ez-alienatuak.
<b>baloreak</b>	askatasuna eta segurtasuna kontsumo pertsonalean eta aurrerapen materiala.	autonomia pertsonala eta identitatea, kontrol zentralizatuaren aurka.
<b>jokaerak</b>	a) Barnean: erakunde formala ordekarritasun zabaleko elkarteak. b) Kanpoan: bitartekaritza plurala, eta interesen korporatibismoa, partidu politikoaren arteko lehia, gehiengoaren arauaz.	a) Barnean: informalitatea, espontaneitatea, horizontaltasuna. b) Kanpoan: protestaren politika, desobediencia zibila, normalean ukapenaren bidez.

ITURRIA: C.OFFE (Partidos políticos y Movimientos Sociales. SISTEMA. 1988)

talismo berdearen olatu hazkorra egonik, badirudi ekologismoa indar berri bat dela, dena kolore berdez tintatzera doana, ingurugiroaren suntsipena kritikatzeko duena, gaitz guztien ipilu eta soluziobidea balitz bezala.

Idazlan honen hasieran esan dugunez, ekologiaren zientzia AIT edo Lehenengo Internazionala bezain zaharra da, nahiz eta ekologismoa, masa-mugimendu berriak bi hamarkada t'erdian soilik izan. Gaur planeta osoan kontinente eta gizarte-klase ororen pertsonak kezkatu eta mobilizatu egiten dira haren izenean, sistema kapitalista industrialak (eta dakigunez, bere etsaia den sozialismo errealeko asko lagundu dio) Lurra hondatu duelako.

1970.eko urteetako hamarkadaren hastapenean Erromako Klubak hazkundearen mugak (Meadows eta Mesarovic txostenak) plazaratu zituztenean, mundu osoari mezu bat zabaldu nahi zioten, indar produktiboen garapen mugaezina mitoa zela. Gaur hogeitau urte geroago berriz aholku ematera datozkigu, hizkera eta doinu berriztu batekin (*La Primera Revolución Global*, Plaza & Janes, 1991) ideologia eta jarrera politiko edo status sozial guztien gainetik gobernu intelektual aristoteliko –ekoteknokrata– bat garapen sustengarriaren ildotan ipini dezala. Eta behin eta berriz galdetzen diogu geure buruari, eredu ekologiko berri horrek justizia ekarriko digu? Izango ote da demokratikoa? Askatasun



indibidual eta kolektiboak kabituko dira ala aristokrazia eta despotismo ekologikoa nagusituko dira?

Ez dugu ahaztu behar Iparramerikan adibidez “Deep ecology-Ekologia Sakona” korrontekoek izaki bizidun guztien eskubide berdinak aldarrikatzen dituztela, gizakion eskubideen lehentasuna errefusatzen dutelarik.

Badaude ere korronte sozialdarwinistak, apartheid planetario bat bultzatzen dutenak, hau da, Hegoaldeko gosedunen ahalmen eta gaitasun eza zein Iparreko garatuenen eskubide merezituak.

Aipatu behar dugu baita ere nazioarteko instituzio kontserbazionisten inguruan eratutako “lobbyak”, pastel ekologikoaren banaketarako prestuak. 1992ko Rio de Janeiron bildutako konferentzia, “Lurraren Gailurra” izenekoak, burokrazia ekologistaren existentzia agerian laga zuen, gobernu eta enpresetatik apartekoa, bere interes berezietan.

Adibide hauek arazoaren dimentsioa somatzeko parada ematen digute. Naturarekiko harreman egoki eta ziklo ekologikoen errespetuak bakarrik ez gaitu injustizia eta bizitza txarretik libratuko, ekofaxismoa posiblea baita.

Ez da gure kasua noski eta harro egon gaitezke Euskadiko panorama ekologista eta Iberiar peninsulakoa ere ekologia sozial eta politikoaren irizpideetan lerratzen da eta. Aldaketarako kategoriak gure ingurugiroarekiko harremanetan planteatuz,

baina giza harremanak arradikalki aldatzeko konpromezuarekin ere.

Gure lurraldean, ekologismoaren diskurtso publiko eta ekitaldiak kutsu antikapitalista sakonaz markatuta daude. Igualitarismoak, justizia sozialak eta beste mugimendu eta borroka edo sektorekiko konpromezuak bizirik diraute. Eta zentzu horretan globalismoak, pentsamolde bezala, ekologismoa gaur eta hemen apriorismo eta interes sektorial edo partikularretatik ihes egiteko, bultzatzen du. Baina ez da hedatuena eta bakarra.

---

### **Ekologistek langileria baino interes orokorragoak defenditzen dituzte?**

---

J. Galtung irakasle norvegiarrak horixe defenditzen du, mugimendu alternatiboek buruzko esplorazio sozio-historikoan. Bere ustean, burgeserik bere iraultzak burutuz gero klase konserbadoreekin aliatu zen proklama demokratikoak populazio europarraren gehiengoari iritsi ez zitezten.

Langileria geroago, bi Mundu-Gerren periploaren ondotik patroik eta estatu kapitalistaren ugazabekin paktu batetara heldu zen. Horrela bere egoera propioa hobetuz, “iraultza sozialista” ahaztu zuen eta bide batez jabego eta desberdintasunen eraldaketa erradikal eta planetarioren “ametsak”. Galtung-en hitzetan, jakina mugimendu ekobakezaleak lekukoa hartu dio Mendebaldeko langileria industrialari.

Guri ere, langileria eta mendebaldeko sindikatu nagusiak errenka dabilzala iruditzen zaigu. Ez da

alukeria esatea sindikatuek normalean, ez dutela interes orokorraren alde ateratzen. Eta horrela pentsatsen du biztanlegoak. Ez klasearen interesak baizik eta talde partikular batenak baizik.

Azken hamarkadetan bere afiliatuen interes ekonomikoak gestionatu dituzte soilik, Administrazioa eta patroiekin borrokan eta Ongizatearen Estatuaren parte bat, hirugarren hanka beharrezko bihurtu dira.

Kontzertazio sozialak, gizarte-egonkortasun franko sortu du, baina politika sozialdemokrata honen praktikan ere sektore sozial marjinatuak areagotu dira, emakumeak, gazteak, jubilatutak, langabetuak, atzerritar inmigratuak... eta hauen ustez sindikatuek interes berekoiak defenditzen dituzte eta ez orokorrak.

Lan-mundua aldatzen ari da oso eta birmoldaketa traumatikoekin, lehengo eta bigarren sektore produktiboak, euskal ekonomia erregionalean bezala, pikutara doaz.

Ekologistak poztuko dira kutsadura-iturri hauek desagertuta? Lanpostu hauek galtzea positiboki ikus daiteke ingurugiro eta gizarte osoari begira iharduera anti-ekologiko eta anti-ekonomikoak baitziren?

Jai daukagu horrelako argudiorekin. Lanpostu eta aktibitate industrial horiek planifikatu zutenentzat eta gaur bertan behera ixtea erabaki dutenentzat enplegua eta ekologia bigarren mailako kontuak dira. Ekonomiaren helburua ez da lanpostuak edo

enplegua ematea, aldiz produktubideen funtzionamendu egoki bat, non aberastasun maximum bat ateratzeko, lan, kapital eta errekurtsio natural gutxienak sartzen diren.

Aspaldidanik A. Gorz-ek esaten zigun hazkunde ekonomikoak ez zuela langabezia zurgatuko. Lanaren birbanaketa, denbora liberatuarena eta sortutako aberastasunarena ere bai, politika berri bat osatuz. Bere ustez: **“Hay que esperar de ella que relativize lo económico y lo resitue en su lugar, que establezca un nuevo equilibrio entre el trabajo remunerado y actividades productivas no remuneradas, desarrollando las prestaciones recíprocas de vecindad, las redes de solidaridad autoorganizada, las cooperativas de autoproducción y los equipamientos colectivos en régimen de cooperativa, los círculos culturales, todas esas cosas que antiguamente constituyeron la fuerza y la autonomía de un movimiento obrero para el que el “socialismo” era sinónimo de autogestión y debilitamiento del Estado”.** (Cuatro Semanas/ Le Monde diplomatique, Apirila 1993. 9 eta 10 hor.)”

Eta bururatzen zaigun galdera da, aldaketa sakon eta erradikal bat egin daiteke irizpide berde eta ekologistekin, erakunde sindikal boteretsuen adostasunik gabe?

Aro post-industrialaren teknologia berriek aldaketa kultural eta sozial izugarriak ekarri dituzte. Gizarte post-industrial horrek ez du aspaldiko langile eta industrien kontzentrazioak

eskatzen. Hirugarren sektorea populatuena da eta langileen gehiengoak ez du lantegi erraldoi batean eta buzoz jantzita lanik egiten. Emakume gero eta gehiago dago produkzioan. Eta horrek sindikalismo klasikoari kontrasesan eta proposamen berriak ere ekarri dizkio.

Eszenatoki politikoan, ezkerrean zein eskuinean fenomeno eta alternatiba politikoak ari dira sortzen aldaketa sozio-ekonomikoen ondorioz. Eta sindikatu eta langileen erakundeak ez dira oso faboragarriak izaten, botere sozial eta ekonomikoaren galtzeko garaian eskakizun feminista, antimilitarista edo nazioarteko elkartasunekoa zein antiarrazistak bereganatzeko.

Jorge Riechmann-ek *Problemas con los frenos de emergencia* bere liburuan arazoari heltzen dio: “**La luchas por la paz, contra el patriarcado y por la protección del medio ambiente no pueden avanzar separadas de una crítica radical de los modos y fines de la producción y de programas de lucha para transformarlos... Las exigencias de los NMS implican una auténtica redefinición de los contenidos y de las formas de la política, ponen sobre el tapete tanto la cuestión de una nueva forma de hacer política como la insuficiencia de aspectos centrales en la identidad histórica del movimiento obrero**”.

Ikuspuntu eta arrazoinamendu hauek konpartitzen ditugularik, **ekosindikalismoaren** batuketa eta elkargunea ezinbestekoa jotzen dugu,

aldez aurretik jakinda, zenbat arrazoi eta zio historiko, kultural, ideologiko eta politikok hurbiltze hau kolokan jartzen duela.

---

### **Garapen sustengagarria ala hazkundea?**

---

Analisi edo ikuspegi nazionalera etorritik, Euskadin ekologistak eta sindikatu edo langileen arteko liskarrak ez dira oraindik makina bat edo gogorregiak izan.

Amankomunean batzuek zein besteek gehien batean Administrazioari bidaltzen dizkiote bere kexak eta neurri txikiagoan enpresen jabeei.

Dena dela, egon badaude arazo eta gatazka batzuk (Atxarte, ASER, paperedo porlan-fabrikak...) hiriguneetan, industria eta nekazarien alorrean ere, produktore eta ingurugiroaren defen-datzaileen artean.

Gaurko Euskadi industrialaren argazkia guztiz dekadentea dugu. Azkenengo hamarkadetan euskal enpresariak poltsikoak diruz beterik izan bazuten ere, bere urteroko bazkideen batzordeetan dibidendoak banatzeko orduan, amortizazio, erreserbak eta bestelako inbertsioak teknologia berri-garbi-bigunen sailan ez zuten eremurik ikusten. Ez ziren existitzen bere hiztegiak. Nolako inbertsioak izan dira azken hamar urteetan euskal enpresetan ingurugiroari begira?

Herri honetako datu ekonomikoen artean “ingurugirorako gastuak” ez dira

inoiz kontabilizaturik izan, PIB, inflakzioa edo ordainketen balantzaren parean. Gaur aldiz, nahiz eta zenbatzerakoan zailtasun batzuk topatu, ura, aire edota lurrari botatako kutsadurak balio ekonomiko garrantzitsua du, dudarik gabe. Adibide bat. “Celulosas del Nervión” izeneko enpresak, bere ur kutsatuak Ibai-zabalera jaurtikitzen dituen, bere errentabilitatea zehazterakoan, pertsonalaren gastuak, lehengaiak, energia... eta abar sartzen ditu. Baina errekurso naturalen kontsumoa inoiz ez du bere kontuetan sartu eta horrela bere kutsadura guztiz merkea zen. Urak ez zuen ezer balio, aire zikindu eta kirastua ere ez, lur pozoinduak bezala. Dena debaldekoa zen. Kartoia edo papera soilik ziren gakoa eta sos inbertituak noski.

Eszenatoki hau euskal ekonomiaren oinarritzko sektore guztietan errepikatu egiten da. Siderometalurgian eta paper- edo zementu-fabriketan, enpresa kimiko edo harrobi eta baso-ustiapenean ere.

Ipar-orratzari buelta emateko liskerrak eta balore kontrajarrien defentsak ikusi beharko ditugu, baina enpresariak eta Administrazioak ongi dakite bide bereberetan ez dagoela jarraipenik.

Lehenengoak, ingurugiroa eta ekologia artikulatu merkatal eta konpetitiboak direnez bere produkzioa **“berdetzen”** hasten ari dira merkatu berriak harrapatzeko gogoaz. Eta Administrazioak ere larri ikasi du ingurugiroaren defentsak borondate anitz biltzen duela. Eta boto franko ere bai.

Produkzioaren sektore oinarritzkoen krisialdiak pinudi eta turismoaren Euskadi (tropikal?) baterantz abiatzen gaitu. Horrexegatik proposatzen ari diren garraio eta komunikabideen azpiegitura berrien plangintzek, gizarte- eta ekoizpen-aldaketa orokorretan pentsarazi behar gaituzte, alternatibak eskaintzeko. Ba al dakite ELA, CCOO eta LAB berrindustrializazioa exijitzen dutenean zer eskatzen ari diren? Berdin zaie zer motatako industria? Bere esku dago hori lortzea edo agian hobe langileen arteko elkarkidetzeta eta lan-banaketa planteatzen hasiko balira?

Gure aburuz, mugimendu ekologista zein sindikala ez daude egoera eta baldintza onenetan elkarren arteko komunikazio eta ekintzetarako. Baina krisialdi ekologiko zein ekonomiko honen soluziobideak, benetakoak izango dira bakarrik prozesuen azken pausoak ( etekinen banaketa edo kutsaduraren metaketa) kontrolatu nahi izan beharrean, elkarrekin langile eta ekologistek prozesu itxi-borobilen alde apostua egiten badute, non funtzio-namendu demokratikoak, produkzioa eta erabakiak “garbitzen” dituen. Pozik baldin bagaude, prozesu produktiboaren hobekuntza finalistarekin, kutsaduraren kontrola edo banatze ekonomikoarekin alegia, ez dugu inola ere sustengagarritasuna bermatuko.

Barry Commoner, ekologista estatubatuarra, halaxe dio, II. Mundu-Gerra eta gero garapen kapitalistak gastu energetiko eta kapitalen inbertsioak hedatu dituela sarreran eta ondorioz, ingurugiroaren osasuna zein

enpleguaren degradazio eta murriztapenak ekarri dituela.

Langile zein ekologisten erantzunkizuna da, jakina, egoera honi buelta ematea. Noizko ikasiko dugu hazkunde ekonomikoa ez dela soluziobiderik, ez langile ezta ekologiarentzat ere?

**“Orokorrean zein tokian toki-koan pentsatu eta ekiteak”** sustrai-etara joatea esan nahi du, arazoen kausa eta jatorrietara eta ez bakarrik bere sintoma kezkarrienak baretzera. Badaukagu gure eskuetan ikasketa serio eta sakonak (ikus, RENNER, Michael. *Crear empleos sostenibles en países industrializados* La situación del mundo-1992 Worldwatch Institute/ FUHEM) non garapen sustengagarriak lanpostu gehiago sortzen dituela erakusten den. Apostua zera da, lan-orduak banatu eta gutxitzea, auto edo autobideen bidez trenbideak eta garraio kolektiboen alde jotzea. Honekin batera birziklapena eta zirkuitu produktibo itxi-borobilak defendatu, lana ziurtatzen baitute eta dibertsitateari ekin monokultibo abandonatuz.

Etorkizunean sindikatu eta ekologisten alternatiben lehian, enplegua eta krisialdi ekonomiko zein ekologikoari buruzko debate gogorrak ezagutuko ditugu. Eta jendea konbenzitzeko adibide praktikoak erakutsi beharko dira.

Iparrak ezin du bere hazkundearekin segi eta Hegoarekiko diferentziak ugaritu; baina ez dugu ahaztu behar Hegoa ez dagoela hain urrun, Marrokko muga baino lehen Simondrogas edo Otxarkoagan topa

dezakegula. Eta ez daukagu inongo ziurtasunik esateko bihar ekosozialismoa apartheid energetiko eta ekonomikoaren aurka ezarriko dela.

Ekonomia moral eta ekologia sozialaren baloreak astindu behar dira kontserbadurismo eta insolidaritatearen uhinaren kontra. Erronka postindustrialaren garaian ekosindikalismoaren konbergentziak zenbait arrakasta ekar lezake, zeren irizpide produktibista miopeen defentsa edo garapen sustengagarriaren aldeko apostuak gizarte aberatsetan soilik, bide oker eta injustuak dira. Horrexegatik, ekosindikalismoari ekin behar diogu, lan erraldoia baina ezinbestekoa.

Bukatzeko Carlos Antunes, ekosozialista portugesak 1991.eko ekainean Gernikan esandako berba hauek eskaini nahi dizkizuet: **“La aparente victoria del sistema capitalista es una victoria pírrica. Si no fuera suficiente considerar el problema de las necesidades sociales que enfrenta a la humanidad hoy -y una gran parte del humanidad se enfrenta al problema de su supervivencia- bastaría analizar los problemas ecológicos a que la humanidad se enfrenta para comprender que el sistema capitalista es un sistema sin futuro. Esto es bueno que se diga hoy porque aparentemente el sistema capitalista está triunfante; pero es un triunfo que resulta de errores y de errores de toda la izquierda, de toda la izquierda de forma compartida”**.

---

## Bibliografía

---

- ABENDROTH, W. *Historia Social del Movimiento Obrero*. Laia, 1975.
- BATOU, Jean. “Los orígenes del movimiento ecologista en la URSS” Inprecor 81. zk. 1991.eko Urtarrila
- FERNANDEZ BUEY, Francisco.”Programas sindicales, intereses obreros...” Mientras Tanto, 41.zk. 1990.eko uda.
- GALTUNG, J. *Los nuevos movimientos sociales y la izquierda actual*, Beste autoreekin. El nuevo compromiso europeo. Sistema, Madrid.1987.
- KATASON, Valentin.EKOS. 1.zbkia. 1991.eko Uda, Mosku.
- KING, A & SCHNEIDER B. *Informe al Club de Roma. La Primera Revolucion Mundial*, Plaza & Janés. 1992.
- MARTINEZ ALIER, Joan. *De la economía ecológica al ecologismo popular*, Icaria. 1991. Bartzelona.
- RENNER, Michael-”Crear empleos sostenibles en países industrializados”. La situación del mundo- 1992- Worldwatch Institute/FUHEM. Madril.
- ANTUNES, Carlos eta beste idazle batzuk. MANIFIESTU EKOSOZIALISTA- Alternatiba berde baten alde Europan. Libros de la Catarata- Bakeaz. 1992.
- FRANKEL, Boris; *Los utópicos post-industriales*, Alfons el Magnánim, Valentzia, 1991.
- GORZ, A. “Construir la civilización del tiempo liberado” Dossier: El paro, un cataclismo de la sociedad industrial. CUATRO SEMANAS y LE MONDE DIPLOMATIQUE. 1993.eko Apirila. 9-10 hor.
- MELUCCI, Alberto. “Los movimientos sociales en el capitalismo tardío”. A Priori. 6/7 zk. 1983.eko Uztaila-Abendua.
- PASTOR, Jaime “Los nuevos movimientos sociales y la acción política” Inprecor 84. zk. 1991.eko Maiatza.
- RIECHMANN, Jorge. *Problemas con los frenos de emergencia? Movimientos y partidos verdes en Francia, Alemania y Holanda*. REVOLUCION. 1991, Madril.